

**PABLO GOMEZ** (Alaveseko jokalaria)**HISTORIA EGITEN**

«Inter Gasteizera partidu ofizial bat jokatzera etortzea Alavesek azkenaldian egindakoaren erakusle da»

EZ DAGO GALDUTA

«Interrek duen taldea ikusi eta zelaira zertarako irten behar duzun pentsa dezakezu. Alta, gure aukerak baditugu»

ALAVESEN AUKERAK

«UEFA Interren aukera bakarra izatea ez dut gogoko, haien maila ematen badute, gauzak zail izango baititugu»

MILANGO INTER

Italiarrak gaur iritsi, eta bihar Dulantzin entrenatuko dira

Milango Inter gaur arratsaldean helduko da Gasteizera biharko partidua jokatzeko. Talde italiarra arratsaldeko 15:30etan irtengo da Malpensako aireportutik eta 17:00ak aldera helduko dira Forondako aireportura. Ondoren, zuzenean Mendizorrotzara joango dira jokalaria. Izan ere, gaur entrentzeko asmorik ez duten arren, futbol zelaia ezagutu nahi dute Interreko ordezkariak. Bihar, aldiz, Dulantziko futbol zelaian entrenatuko da Inter goizeko 11:00etatik aurrera. Partidua jokatu eta gero ere Araban geratuko dira italiarrak larunbatera bitarte. Argomanizen kontzentrazio txiki bat egiteko asmoa dute, Italian azken egunetan egin duen eguraldi txarra dela eta. Azkenik, larunbat arratsaldeko 17:00etan hegazkina hartuko dute, eta Napolesera joango dira, igandean Ligako partidua jokatzeko.

1965). Garai hartako Real Madrid eta Benfica azpiratu zituen Helenio Herreraren Interrek.

Geroztik, soilik 1989an *Scudetto*-a irabazi zuen taldeak piztu ditu Interreko zaleen arimak: Trapattonik irizpide onez lan egin zuen, eta hura izan zen azken talde zentzuduna. Zenga, Bergomi, Brehme, Ferri, Bianchi, Berti, Mathaeus, Ramon Diaz, Serena... Helenio Herreraren *Grande Inter* harekin batera, zaleek gehien maite izan dutena. 90ko hamarkadan UEFA hiru aldiz irabazi arren, ez da nahikoa izan *tifossi*-en grina pizteko.

Orain, Massimo Morattirekin, Inter izar galduen galeria bilakatu da: Italiako klubaren artean telebista kontraturik onena lortu du Telepiu katearekin (7.500 milioi pezeta urtean), munduan dirurik gehien irabazten duen jokalaria dauka (Recoiba: 1.400 milioi pezeta urtean), Ronaldo, Vieri, Blanc... Denek hanka egin nahi dute. Zergatik ote?

IVAN TOMIC ALAVESEKO JOKALARIA

ERRESPETUA

«Inter, oso talde indartsua izanda ere, ez da Deportivo edo Valentzia baino hobea»

EMAITZA

«Irabaztea da helburua, baina, lehenengo, Mendizorrotzan ez galtzea lortu behar dugu»

Asier Errasti | **GASTEIZ**

Partidu historikoa jokatuko du bihar arratsaldean Alavesek Milango Interren aurka, eta hori nabaria da jada jokalarien artean. Hala, Ivan Tomic partidua jokatzeko irrikitan agertu da. Jugoslaviarrak Erroman jokatzen zuenean Italian Interren aurka aritutakoa da, eta baikor ageri da.

■ Azkenean heldu da Interren aurkako partidua. Nola ikusten duzu kanporaketa?

Normala den bezala, alde aurretik Interrek baino aukera gutxiago ditugu, baina ez dut zalantzarik geuk ere aukerak ditugula. Gainera, bai joko bai moral aldetik une egokian gaudela uste dut, eta horrez gain, ez dago esan beharrik ere partidua jokatzeko gogo izugarritz gaudela guztiok. Horregatik, gure aukerak baditugula uste dut, eta horiek baliatzen ahalegindu behar dugu orain.

■ Italiako futbola oso ondo ezagutzen duzu, Erroman bi urte egin baitzenituen. Nola ikusten duzu Inter?

Une txarrak bizitzen ari da Inter denboraldi hasieratik, eta azkenaldian gora egiten ari zela bazirudien ere, min egin die azken jardunaldian Reggina bezalako talde baten aurka etxean berdintzeak, hori emaitza oso txarra baita beraientzat. Alta, horrek ez du ezer esan nahi. Gainera, guk gure buruan pentsatu behar dugu eta ez Interren, oso talde indartsua bada ere, ez baita Bartzelona, Valentzia edota Deportivo baino hobea. Talde horietako batzuren aurka partidua oso onak egin ditugu guk Mendizorrotzan, eta, horregatik, ni baikorra naiz eta UEFAn oraindik gauza garrantzitsuak egin ditzakegula uste dut.

■ Zure ustez, nola jokatuko du Interrek Mendizorrotzan?

Egia esan, ez dut uste Interrek partidua irekia jokatuko duenik Gasteizen. Esperientzia handiko taldea da, eta ondo dakite kanporaketa ez dela lehen partiduan erabakiko. Nik uste dut atzean sendo jokatuz agertuko direla, eta gainera presio izuga-



KARLOS BIGURI

«Ez dut uste Interrek partidua irekia jokatuko duenik Gasteizen»

ria egingo digutela zelai erdian.

■ Beraz, Interrek Alavesi errespetuz jokatuko diola uste duzu?

Bai, Alaves European izen handiko taldea ez bada ere, Italiako talde guztiek argi izaten baitute Espainiako Ligako edozein talderi errespetua agertu behar diotela. Alavesentzat, gainera, bere izena ezagutaraz-

teko aukera bikaina da partidua hau.

■ Italiako berrien arabera, gauzak oso bero daude Interren. Italiako futbola ezagututa, presio handia izango dutela uste al duzu?

Bai, argi dago horrela izango dela, beraiek Ligako sailkapenean ez baitaude batere ondo. Gainera, Interrek ez du Alavesi irabazteko presioa bakarrik

izango, UEFA irabaztea ere eskatuko baitzaio. Alta, gu hemen gaude eta hori zailtzen ahaleginduko gara.

■ Amaitzeko, emaitzarik emango zeniguke biharko partidurako?

Egia esan, ez dakit. Argi dago irabaztea dela gure helburua, baina nire ustez, lehenik eta behin Mendizorrotzan ez galtzea lortu behar dugu.